

Brigido Iribar Arrizabalaga

*Getaria,
Gipuzkoa (1939)*

Aurkibidea

Biografia



Getarian jaio zen, "Katukalian" (Aldamar kalea). Aita eta familiako gehienak arrantzaleak zituen eta bera ere arrantzale izan da bizi guztian, 12 urterekin lanean hasi zenetik. San Prudentzio itsasontzia izan du bere senideekin batera. Itsasoari buruzko kontakizunak aipatu ditu elkarrizketan, eta Getarian erabiltzen diren arrain-izenen zerrenda ere egin du.

Zintak

GET-021

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-04-30
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k):** Iribar, Jesus

GET-022

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-04-30
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Getariako "Katukalea", Aldamar kalea

- **Erref:** GET-021/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:00:47. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Aldamar kalean jaio zen, "Katukalian". Katu asko zegoen eta horregatik esaten zioten. Antxoa asko zegoen garai hartan, kalea mendi partera dago, eta horregatik izaten zen katu asko. Etxeko leihotik ere arraina botatzen zitzairen katuei. Kalea aldatu egin da azken urteotan, etxe berriak egin direlako.

Transkripzioa

- Eta jaio ziñan, Getayan?
- Getaidxan.
- Ze kaletan esan dezu?
- Esto, "calle" Aldamar.
- Aldamar?
- Aldamar. Goiko kale hura da.
- Baiña horrela deitzen diozue?
- Kato kalia.
- Kato kalia?
- Bai.
- Getaidxan hola esaten da ezta? [...]
- Kato Kalia, bai, Getadxan kato kalia.
- Eta hori zergatik da?
- Kato asko zalako, ta oaindik bada e? Oain'e kato pillua dago, bai.
- Eta holan esaten diyoze?
- Bai, bai, Kato kalia, Getayan iya ez do besteik, hua Kato kalia. Jakin'e ez due egingo gaztiek Aldamar izena dunikan kaliak.

- Ez? Eta kato asko zan orduan?

- Bai, asko, antxua're bai, oain baiño geyo. Geo, geo itsas aldea ia ia mendiya ta zan, mendiya, mendi parte hartan, plai aldea, Zauzko plai aldea.

- Eta katuak libre?

- Bai, ba, katuak libre, oain bezela.

- Ta katuak libre.

- Bai, dana katuak libre, oain bezela.

- Eta arraia ta, kalia izaten zan arrain...

- Antxua oain'e jateko ez daukaguna, orduan bota iten giñun ya katuai leyotikan antxua, antxo frexkua.

- Oain botatzeko moduan...

- Ez...

- Eta asko aldatu al da kalia?

- Kalia? Bai, bai.

- Katu kalia?

- Bai, etxez bai, etxez bai, etxez, ba... etxe berri batzuk in dia, ta bai. Baiña Getaya zarra, parte zarra aldatu egin da pixkat estruktura, hola itxe berri asko ez da iten kalia [...] kale zaharrian, herri zaharrian.

- Oraindik eta etxe zaharrak eta badia...

- Bai, bai.

2. Getariako kale-baserriak. Baserritarrak itsasoan lanean eta arrantzaleak lurra lantzen

- **Erref:** GET-021/003
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Kale-baserriak ere baziren Getarian, kalerik gehienetan. Katukalean, besteak beste, Higinionekua eta Larrakonekua. Ganadu pixka bat izaten zuten eta soro batzuk ere bai. Baserritarrak itsasoan ere ibiltzen ziren. Arrantzaleek ere lurra lantzen zuten. San Anton mendian lur pusketa bat zuen familia bakoitzak. Batez ere patata eta kipula landatzen zuten.

Transkripzioa

-Eta esan diate kale baserriyak eta izaten ziala Getaiyan...

-Bai, hemen bertan'e bai.

-Bertan, Katu kalia?

-Bai, Kato kalia'e bazan. Kale baserriyak, joño, bi ganao, txarri bat, zukaenak, hemen'e bai, goiko kalia'e bai.

-Goiko kalia'e bai, Elkanon'e bai...

-Ez, hemen ez, ez, hemen ez.

-Baina Aldamar kalia, Katu kalia bai.

-Kato kalia bai.

-Zer zan, zer zeon, bakarra?

-Ez, geyo bazian, hayek, bat Higinionekua, bestia Larrakonekuak... Oaindik bizi dia, e? Bi hoyek, bi hoyek zian.

-Eta ganaua eta . . .

-Bai, bi-hiru ganao. Ta gero, ba, souak. Nola ez zan, esto, udan ta atunetan eta azkar bukatzen huan, ba denbua izaten huan orduan lehorreko lanak egiteko ere. Oain ez zeok holako denboraikan.

-Eta orduan izaten zian lehorreko lanak ere bai, baiña itsasuan ere ibiltzen zianak.

-Bai, bai, itsasuan ibiltzen zianak.

-Eta soruak eta bertan?

-Ez, souak pasa egin behar. Beno, gero gendun San Anton mendidun arrantzale danak puxketa bana.

-A! Zuek'e bai!

-Bai, bai, bai, dan-dan-dan-dan-danok. Familiya guztiyak. Ustez gaiña kendu zanean ustez betiko jana kendu zala Getaiyan, ta patata, patata bakarrik zan: patata, tipula, arto pixka batzun batzuek, hola kale basarriya zunak eta bestelakoik ez.

-Eta kendu zanian jendia keja?

-Izugarrizko keja. Problematika izugarriya izan zan.

-Bai, bai, eta zuk, hori ere ezagutu dezu . . .

-Bai, bai, esaten det, geuk bagendun ta.

3. Garai hartan, antxoa diru-sarrera nagusia

- **Erref:** GET-021/004
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

<p>14 urterekin hasi zen itsasoan. Tarte batean utzi bazuen ere, ia bizi guztia pasa du itsasoan. Getarian horrela zen beti; hamarretik bederatziz itsasotik bizi ziren. Hasieran txalupa txikietan eta gero bapora handietan, arrantza-ontzi handietan. Garai hartan batez ere antxoa harrapatzen zen, horixe zen urteko diruaren % 50. Gero atuna, bisigua, papalardua, txitxarroa... Orain atuna da nagusi, baina lehen askoz gutxiago.</p>

Transkripzioa

- Eta zu, txikitatik itsasuan?

- Bai, bai.

- Noiz hasi zifan?

- Bai, ni hasi hamalau urtekin. Geo utzi nuan, ez nintzan... itsasuak ez zian ondo hartu, eta soldautza bukatu nuanian hogeita bat urtekin berriro hasi eta ya oan arte.

- Eta, orduan normala izango zan hori?

- Bai, bai, bai, bai, Getaiyan bai, normala. Getaiyan ba zenbat, hamarretik bat gelditzen baldin bazan o zoze estudiantu ta ez baldin bazan zoze hola zerbait, itsasora.

- Eta zuk, familiya eta aita ere...?

- Bai, familiya. Bai, bai, danok, danok. Aita ta..... Bai.

- Eta normalian ze hasten zan, aitakin barkuan edo?

- Bai, txalupa txikian ta, txalupa txikidun ta. Gero ez, gero ya bafore haundira, bafore haundira ze tokatzen zan. Guk geuk giñun bafore bat. Ni itxeko baforera, baiña bestiak normalki...

- Aitak eta...

- Aitak eta zuen bafore bat.

- Izena nola zun?

- San Pudencio. Oan'e bada.

- Eta gero, bizi guztian bertan?

- Bizi guztiyan baforian.

- Eta zu hasi ziñanian eta, zer harrapatzen zan gehienbat?

- Antxua, antxua. Garai hartan, antxua zan... Ondo aitu hau, e! Garai hartan bakarrik ez, pixkat geora're bai, ehunetik hirurogeita hamabosteko jatekua, arrantzalieta. Ehunetik hirurogeita hamabost. Ez, gaixki ai naiz: ehunetik berrogeita hamar, antxua. Atuna, ehunetikan hamabost. Eta geo bestiak, ehunea ailleatu arte falta dian habek danak, ba bixigua, paparlardua, txitxarrua, berdela... Ta oan?

- Baiña klabia?

- Klabia antxua, antxua "cincuenta por cien". Ta uan gertatu da da antxua, bajatu da hainbeste behera, behera, behera, kiloz jaisten, jaisten, jaisten, jaisten, "setenta y cinco por ciento" atuna da. Gaiña, gaiña ez due utzitzen harrapatzen. Aurten'e, aurten ez do harrapatzeikan

- Eta lehen atuna otera ehuneko hamabosta besteik ez.

- Bai, ez. Kostera ere motxa iten zan e?

- Atunana?

- Atuna. Geo, baforiak txikiyak zian errutira juteko ta. Juten zian Gijon gaiña, juten zian... gure denboran bai. Gure denboran ni izan naiz ba Afrikan'e bai, Azoresetan'e bai, Mediterraneoan'e bai...

- Baiña gerora?

- Gerora.

- Baiña zuen gurasuen sasoi eta?

- Ez, ez, ez, gure gurasoen sasoi ta ez.

4. Belauntziak eta kostaldeko arrantza

- **Erref:** GET-021/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Claudio gaztea zela, antxoa mailan harrapatzen zen. Antxoaren neurriaren arabera, maila bat edo bestea erabiltzen zen. Ontziak ere belakoak ziren, txikiak, eta "kaleuan" egiten zen, kostaldetik bertan, hurrean. Motorrak gero agertu ziren. Moila ere beste bat zen, "antxirridxa". Hantxe ikasten zuten mutikoek igerian. Txalupak ere bertaraino iristen ziren.

Transkripzioa

-Eta antxua orduan, bi-hiru hillian antxua?

-Bai. Lenbizi, gu, ni gaztea nitzanian, maillan.

-Maillan?

-Maillan. Sariak mailladunak. Ze mailla zuan, antxo hura arrapatzen zan. Maillatu ta geatu iten zan. Orain in dia gauzak aldatu.

-Mailla diferentietako, neurri diferenteko.

-Antxua diferentia.

-Eta ze erabiltzen zan, sasoi garai batian bat eta bestian bestia, edo...?

-Ez, gutxi gorabehera, ikusten zanian zeak'e bai, ikusi [...] haundiyak zauzkak, sare bat o bi bota, antxua haundixue dek edo txikidixue dek, eta orduan batzuk bota eta bestiak barroa ta hola.

-Eta hori, baporetik'e bai, maillan? Edo txalupa txikiyak?

-Bai, txalupak eta geo lehenbiziko motorrak, zeak zianak, esto, gasolin motorrak eta zeak, eon pixkat... belan ibiltzen zianak. Zea, [panpaloi?] txiki batekin belak, belak.

-Hori ere ezagutu al dezu?

-Bai, bai, belan.

-Eta maillan?

-Bertan e? Klaro, orduan antxua honea etortzen zan.

-Kostan bertan?

-Kalegua.

-Kalegua esaten zan?

-Kalegua. Kalegua. Klaro, fabrikak zian kale hontan, beno, kale hori ya geiyena bajo denak antxua eiten zan. Hemen'e bai batzuek, eta geo plastikorako pixkat haundixaua fabriketan, antxua dan-dana Getaidxan elaboratzen zan. Geo etortzen zan Italitikan barko bat aldian behin. Orduan zeatu bakarrik, ez zan latian-ta jartzen; barrilletan zeatu, gatzakin zeatu, geo itxi, kargatu eta Italira.

-Eta Italiara ya eramaten zan barriketan . . .

-Barriketan, berrogeita hamar kiloko, hirurogei kiloko barriketan.

-Eta orduan, zuk ezagutu zendun ya lehenbizi, ba, belakin eta kale...

-Bai, bela, bela gutxi zan baiña... geo han aldian erakutsiko dizkiyat, bazezkatek hor argazki batzuek Getaiquak pilla bat zio, nahi badek utziko diat eramaten. Moilla zarra, moilla zarra... ez hau, e? -Barrurokua, oain arranpla nola do? Ba horixe zan, moilla hori huan leno Getaiyan. Nik ezautu nien, nik ezagutua diat hau oaingo zea hau, baiña lehengo Getaike moilla zaharra hura bakarrikan, San Anton azpidxan daon hori.

-Txintxarria o nola da hori? Txintxarriya.

-Txintxarriya... Ez.

-Atxirriya?

Atxirridxa! Atxirridxa! Han ikasten giñun igeriyan danok.

-A bai e?

-Hondar pixka pixkat huan han goyan, eta...

-Eta, txalupak eta bertaraiño?

-Bai, bai, hura bete-bete-betia. Ta gero erakutsiko diat.

5. Antxoaren arrantza: ardoran, majuan eta "estraperluan"

- **Erref:** GET-021/006
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoa harrapatzeko modu asko zegoen. Gauez ardoran egiten zen eta egunez majuan, izurdeei segika. Izurdeek antxoak jaso egiten dituzte itsaspetik eta ikusi egiten da azalean. Antxoak beti eguzkira egiten du ihesi eta horren arabera botatzen da sarea. Gauean ardoran egiten zen. Antxoa gauez ikusi egiten da, argia egiten du. Ilargia zenean harriak botatzen ziren itsasora (danba-harria, txikote batekin lotuta). Harria botatzean, arraina dagoen tokian arraina mugitu eta ardora egiten du, argia egiten du. Danba-

harria bi lagunen artean botatzen zen. Orduan ez zegoen aparatorik eta ikusi ahala harrapatzen zen. Bestela, "estraperluan" ere egiten zen: sarea iritzira bota, ahal zen tokian edo antxoa egongo zela pentsatzen zuten tokian, eta batzuetan asmatu egiten zen.

Transkripzioa

-Eta mailla gehienbat?

-Maillan, maillan, maillan. Eta geo kazan, atuna kazan.

-Bai e?

-Kazan. Biberuak eta, nik hogeitun urte nitunian o hola hasi biberuak, hori bai, hori, hamabost urte nitunian edo hola.

-Eta antxua ta, antxuatan iteko, zer zeren, bi o hiru modu diferente bazian ez?

-Bai

-Edo zerkuan ere bai, gabian edo majuan edo...

-Gabian ardoran.

-Gabian ardoran?

-Ta normalki egunez majuan, majua deitzen zakok izurdiakin: izurdiai segi, segi, segi, segi, segi eta izurdiak antxua billatzen zunian, ordun iten zin behera sartu, ta jatea dijuanian, hik'e ze ingo huke? Igesi! Igesi! Orduan antxuak igesten dik behetik gora. Ta orduan iten dek gorri-gorri-gorriya itsasua, ordun ez [zitxon] aparatoik eta ezer: bista, txoriya, ta..., nik lenbiziko antxua hala harrapatu nian.

-Majuan?

-Majuan. Ta beti eguzkiyen ondoren, hura itxiaz.

-Ze ba?

-Eguzkiya nun dao? Eguzkiya moitu iten dek, estetiken erten ta oestea arte. Asike eguardiya baldin badek, eguzkiya surrian zeok. Orduan surra itxi beti.

-Surretik bota?

-Surra itxi, muturra itxi, muturra itxi. Saria hola botatzen dek.

-Beti harako joera daukalako?

-Beti eguzkiyan joera. Antxua igestea eguzkiya, eguzkiyan billa.

-Eta goizian estetik eta...

-Goizian estetik, eta illuntzian oestetik. Oestea, bai.

-Eta hori zan majuatako...

-Majue.

-Majuatako arrantza.

-Eta gabian esan dezu?

-Geo sardeta're bai, sardeta're bai. Izurdeik gabe berez jaikitzen dana ba..., saltoka edo bestela ikusten dek errutia beltzunia, "oi! Arraya". Antxua ta bota. Gabian ardoran, ardoran hasiera. Geo dana argiyakin.

-Eta hasieran nola ardoran?

-Ardoran, ikusi iten dek gabez.

-Jun ta ibili ta...?

-Ibili ta ikusi, billatu arte. Ilargiya zeonian, ilargiya zeonian, orduan ibiltzen hituan holakoxe harri batzuek, haxe, hiru bat kiloko harriyak, kanala atea, txikota amarratu harei, esto... ardorik ez dek ikusten, ilargia bado ez dek ikusten, arrairik ez dek ikusten. Orduan, aurrian jarri bafore txikiyuak'e bai, batek bota dzu! Bestiak dzu! Batek dzu! Bestiak dzu! Arrayan gairian jartzen zanian, arraia sustatzen zanian, dzu, iten zien, ta orduan ikusten zien arraya zeola. Ordun iten zien, ta dzu! Orduan, bota saria.

-Eta harri hori botatzen zan?

-Harri hori.

-Izenik edo bazun?

-Danbarriya, danbarriya, danbarriya, danbarriya, danbarriya, danbarriya.
 -Eta hori aurretik...
 -Bi launek: blast batek eta blast bestiak, eta blas bestiak, eta blas bestiak, eta.. "in dik! Listo!" Ta erria.
 -Eta erraz aurkitzen zan antxua?
 -Zeonian bai!
 -Gehio zeolako.
 -Gehio zeolako. Hori ez diat nik ezautu, e? Baiña... geo baita zean'e, bazterrea etorri hemen kosta, kosteta etorri ta, klaro, aparatoik eta ez zeon ezer, eta antxua ez dek beti jaikitzen, ta orduan zeon "estraperlo". Asi ke jun ta toki seiñale bat o toki batzuk beti hobiak dia geyo harrapatzen dalako "o lo que sea" , "por tiempos" jakin iten da, ez? Ta jun ta bate ikusi gabe... bota; ta batzuek harrapatu ta bestiak ez ta. Estraperluan.
 -Holan esaten...?
 -Bai.

6. Itsasoko txoriak: gabaia, kaioak...

- **Erref:** GET-021/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Natura » Flora

Laburpena:

Arrantzarako txoriak ere garrantzitsuak ziren: kaioak, pardelak edo gabaia... Gabaia, batez ere atunetarako dira onak. Gabaia dagoen tokian atuna izaten da gehienetan. Gabaia eta martinak antzekoak dira, baina ez berdin-berdinak.

Transkripzioa

-Eta esan dezu txorai segika ere bai.
 -Bai. Klaro.
 -Ta? Ze txori izaten dia?
 -Txoriya, hemengo txoriya, ze esaten da? Kayua esaten diyou; kayua, kayo txikidxa. Ta bestela, zea, nola izena du...?
 -Gabaia o...?
 -Gabadxa, pardela.
 -Pardela?
 -Pardela. Batzuek gabadxa deitzen diyoue, bestiak pardela... hori atunetako hobia da, e?
 -Antxuetako ez?
 -Bai, antxuetako... baiña ez, pardeletan, zean ta bai, udaan ta bai. Hori geyenbat atunekin ta ibiltzen da. Atunak nola altxatu eiten duan zea, izurdia bezela, berdin-berdin. Atunek jan ber dunian, antxuek igesi iten du gora, ta orduan pardelak...
 -Gabaia o martiña, o nola esaten dezue?
 -Bueno, bat da martin txikiya, ta bestia gabadxa. Igualtzuek dia, baiña diferentia dia. Batzuek hega due gelditu gabia, ta gabayak du ibili ta zea, zea juten dana.

7. Bisigutako arrantza eta tretza-betetzea

- **Erref:** GET-021/008
- **Iraupena:** 0:06:55. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Bisigutako arrantza ere ezagutu zuen. Hala ere, berak lehorreko lana egiten zuen gehienetan. Bisigutako arrantzarako tretzak egin behar izaten ziren eta berari lan hori egokitzen zitzaion. Ontzi bakoitzak bi aparejo zituen, bata itsasoan eta bestea lehorrean. Ontzi bakoitzean 8.000 amu inguru. Egunero-egunero amu guztiak prestatu behar ziren, hurrengo egunerako. Tretzak ere eurak egiten zituzten. Tretzen egitura eta zatiak ere azaltzen ditu, eta tretzak nola egiten ziren. Tretzak egin ondoren, amuan antxoa jarri eta tretzaolan jartzen ziren. Tretzaola bakoitzean 300 amu inguru. Herriko jaietan ere konpetizioak egiten ziren, ea nork azkarren egin. Bisigutako arrantza neguan izaten da, azarotik urtarrilera. Otsailerako antxoa hasten zen. Bisigutako arrantza baino lehenago ere antxoa hartu behar izaten zen, gero bisigutan erabiltzeko.

Transkripzioa

-Eta bixigutako arrantza ezagutu zenun?

-Bai! Ibili gutxi ein nai. Ni, orduan, lau lagun, sotuan gelditu ber izaten zuen. Lenbizi in ber izaten gendun setienbrian edo holako antxua ein.

-Harrapatu?

-Harrapatu. Hura gazitu, ura zeatu, salatu, eta geo norbeak ein trezak. Tretzak. Treza deitzen dia horik. Treza bakoitzak ehun ta hirurogeita hamar amo, hirurogeita hamar amo, berrogeita hamar treza, berrogeita zortzi, berrogeita hamabost, ta orduan juten zian han zortzi-hamar gizon, ta beste sei-lau-bost geatzen zian lehorrian. Porke ein ber izaten zian bete hayek.

-Egunero-egunero?

-Egunero-egunero bete.

-Bete ta askatu ere bai trezak? Aurreko egunekuak edo ya garbi etortzen zian?

-Geidxenak garbi etortzen zian, geidxenak garbi etortzen zian. Azkenea behintzat amua ere gutxitu ein zan, ta arrazo sartzen zan, ta garbiyo [...]. Asi ke apajo bat itxasuan ta beste apajo bat lehorrian.

-Eta esan dezu ehun ta hirurogeita hamar amu?

-Ehun ta hirurogei ta hamar, ehun ta hirurogeitamabost, ehun ta larogei.

-Treza bakoitza.

-Treza bakoitza.

-Ta zenbat treza ibiltzen zian?

-Berrogeita hamar.

-Guztira orduan, zortzi milla...?

-Ba, zortzi milla amo. Oain motor txiki batek ibiltzen txu zortzi milla amo.

-Eta lehorreko lana, zein izaten zan orduan? Goizian izaten zan o gabian, trezak [...] Ta...?

-Ez, ez. Segun ze ekipo zeon. Gizona're, askotan daneako ez huan gizonik izaten, ta orduan trezak itxian bete're bai. Famili askoek, dozena bat trezo hartu ta, ama-alabak o... Baiña guk, ni lehorrean goizeko hirutan hasi ta hamarrak aldea arte edo hola.

-Goizian beti?

-Beti goizian. Ta gero bafora etortzen zanian, baldin bazeon... Ta geo iten huan puskatu, ta hayek konpondu, arreglatu . . .

-Gero egunian'e . . .

-Egunian'e lana eoten huan.

-Deskargatzen ta . . .

-Deskargatzen lan gutxi izaten huan orduan. Bost peztan bixigua.

-Eta trezak eta, zuek egindakuak ziran?

-Bai, bai, bai. Gizon bakoitzai ematen zitzakon fabrikatik etorrita bezela [rollotikan] ta sokak, honenbeste amu, ta geo txanpela. Txanpela dek "puntera". Treza juten dek hola, hauxe huan neurriya, amotik amoa, ez? Hamen amo bat, hamen bestia, ta hamengua izaten dek, ba, zenbat izaten dek ba, zentimetroko holako soka, soka, ta geo beste erdiya, meheua, jaten duna, meheua.

-Hori da?

-Txanpela, txanpela.

-Eta trezak orduan egiteko, soka hartu eta txanpela...

-Sokai, sokai lehenbizi, bihurridxa kendu uno por uno. Bihurriya, bihurridxa fabrikatik ekartzen du. Bihurridxa kendu, eta tiratu, trezak in. Ez huan zailla iten. [...] lehenbizi amua jo, amua jo. Amotan honelako zea jarri, "puntera" hori jarri, holakoxia, hauxe. Geo koapilua in, porke zean, bestela korritu eiten zian. Orduan, silla batian, silla... Tiraan'e bai, bestela sillan jarri, amarra muturrak eta da! Honenbestian. Da! Sillai. Ta firme eiten zuenian amarra zeatu, amarra zeatu, amua zeatu...

-Lotu?

-Lotu zeai. Bea, amo bea ez e! Amu bea lotu. Amua lotua zeok, amuai buelta bat eman, han jarri, ta bueltak eman, bueltaka, bueltaka, bueltaka... Iten zanian, holako txotxa hartu, San Antongo mendira junda, txotxak ekarri, ta hura han sartu, banaka-banaka, to ordun gelditzen huan honela apajua.

-Amua bertan?

-Amua sartu, sartu, sartu, eta gelditzen huan honela.

-Amua goyan?

Amua goian, eta apajua hola. Geo, hamen jartzen huan, harriya jartzen uan gaiñian, hemen maya, antxua eta geo, zea, trexaola. Trexaola. "cincuenta por cuarenta" o hola, ta da! Hamendikan, antxua hartu ta bete ta jarri, hartu ta bete ta jarri. Banaka-banaka. Bakoitzian, trexaol bakoitzian, bi bi bi bi apajo.

-Bi apajo? Hirurehun bat amo?

-Bai, hirurehun bat amo, bai. Ta geo eiten hitun konkursuak eiten hituan, zein azkarro, herriko festa zea izaten huan ta.

-Bai e? Herriko festetan hori?

-Bai.

-Eta zuen artian'e bai igual, ez?

-Bai, beno, guk guren artian bagiñakigun zein giñan onak.

-Eta esan dezu tripulaziyo bakoitzian lau-bost...?

-Bai, lau-bost bai. Edo hiru. Hiru behintzat gutxienez.

-Bai, ze hori lana izango da, ezta?

-Bai, batzuek ohitu gabiak eta, gu mutil koxkorretatik ohitu giñun, gu azkar xamarrek giñuan... Baiña batzuk nahio izaten zien itsasoan denboaletan neguan, trezak betetzen eon baiño. Nik ez.

-Gaiñea, bixigutako arrantzak neguan eta izaten zian.

-Negua, negua, negu purua.

-Eta zu orduan bixigutan ez ziñan ibili. Itsasuan eta...

-Ez, ni beti lehorrian, beti.

-Eta hori, bixigutakua noiz izaten zan? Ze garaitan izaten zan?

-Ze garaitan? Nobienbre, nobienbretik eneroa, San Antonak pasa, ta

febreroako behintzet ya antxoata
 -Baiña esan dezu bixigutako're, antxua lehen harrapatzen zala.
 -Leno harrapatu, geo gazitu, gazitu, geo aroma emateko pixkat gustua...
 Honbre! Harek ez hitun tontuak e! Esto, zea sartzen zitxakon erramua.
 -Erramua e?
 -Erramua.
 -Antxuak...?
 -Usaya hartzeko! Usaya hartu deilla erramuen.
 -Bixiguai erramua gustatzen zayo?
 -Erramua, bai.
 -Eta, bestela, antxua bizirik eta harrapatzen zan edo?
 -Bizirik? Oso bizirik.
 -Ez, ez, baiño bizirik, gorde bizirik?
 -Ez, ez, hori, hori... "el año cincuenta y cinco, cincuenta cincuenta y cinco"... Ba nik hamalu urte nitunian edo hola hasi hituan.

8. Lehen berdel gutxi harrapatzen zen, zailagoa zelako

- **Erref:** GET-021/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Berdela eta txitxarroa ere harrapatzen zen. Lehen berdel gutxi harrapatzen zen. Garai hartako sareekin oso zaila zen. Orain askoz errazagoa da.

Transkripzioa

-Eta orduan neguan zan bixigua, gero antxua eta...
 -Ta geo, derivados, txitxarrua, berdela, na.
 -Harrapatzen zan berdela?
 -Bai, baiña oaingo aldian gutxi. Saria gutxi. Berdela zaila izaten zan harrapatzen. Oain, "en cambio", sare habek eta... Sare habekin erraz harrapatzen due berdela
 -Ta lehen ez e?
 -Len ez, len zaila, oso zaila, oso zaila leno berdela harrapatzen
 -Ta zergatik da hori?
 -Arrai azkarra dalako, ta geo bloke haundikuak, ta sare... Sare txikiyak, sariak algoidozkuak. Izaten zian larogeita hamar braza. Oain zea, oain hirurehun braza, badabe sariak hamabi tonelada pixatzen txuenak, ta orduan bizkarrean jazotzen giñuzten zeara, lonjara.
 -Ta orduan bihar zian berdeletako o...?

9. Azores inguruko mareak gogorak ziren

- **Erref:** GET-021/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Claudioren garaian hasi ziren Azores ingurura joaten atunetara. Ez zuten ondo pasatzen. Lehengo ontziak eta frigoak ez ziren oraingoak, eta Azorestik Vigora egun asko ziren. Marea gogorrek izaten ziren.

Transkripzioa

-Ta geo beste harek, geo hasi giñuan zeara juten, lenbizi Azoreseta.
-Atunetara?
-Bai, atuneta. Ta Azorestikan Vigoa, “muchu tortilla”. Egualdiya pixkat txarra jotzen zigunian ta, paraje txarra, txarra.
-Bai e? Aldia dago hamendik harea?
-Bai, bai, bai, izugarriya. Ta geo, bide luzia, erdi bidian harrapatzen badik, “no hay arribada”. Honea o hara, beti “dos días”, o “día y medio” o...
-Bai, eta baforiak ere, ez zian oraingoak.
-Ez. Oainguak hobiak dia, baiña hala're bastante haundidxa bagiñuan orduan hara juteko. Baiña beti karga-karga eginda: biberuak kargauta, larogei tonelada ura, o hirurogeita hamar [...] ura. Geo frigua're, oain bezelako frigoik ta gauzaik'e ez, ta jela asko eraman bihar , eta...

10. Garai bateko ontziak oso kaskarrak ziren: sukaldea, komuna, oheak...

- **Erref:** GET-021/011
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Lehengo baporeak, ontziak, egurrezkoak ziren. Ez zuten inolako erosotasunik. Komun txarrak, edo askotan komunik ez. Kamaroterik ez, kamaina txiki batzuk besterik ez. Ura ere gutxi. Oraingoekin alderatuta, lehengoak oso kaxkarrak. Kanpainak ere txikiagoak ziren, hiru egunekoak. Euren garaian luzeagoak ere bai. Gaur egun askoz luzeagoak. Sukaldeak ere oso txarrak eta jan ere nahiko gaizki. Gehienetan marmitakoa edo arraina parrillan. Eta ardoa ugari.</p>

Transkripzioa

-Eta baforiak ere nolakoak zian? Lehenbiziko baforia ezagutu zenuna, “años cuarenta” ta, nolakoak izaten zian? Egurrezkuak izango zian.
-Egurrezkua bai bai, egurrezkoak.
-Eta barrutik eta nolakoak eh . . .
-Barrutik, barrutik, lo eiteko tokiyak eta, “indeseables”. Geo personen ta bean garbitasunikan eta ez zeon.
-Komunik eta bazan?
-Komunik? Bai. Bai ta ez. Bestela atzian ein bihar. Atzian holakoxe zea bat, zulo bat, ta antxe, arriskuan e, arriskuan.
-Eta lo egiteko ta?

-Lo iteko, hola, kamaiñak. Kamaiñak ez zan komeni zabalak izatia, kamaiña istua bihar zuan. Zabala baldin bada kamaiña, lotako tokiya, balantza eiten dunian, ibili iten haiz. Orduan, kamaiñak, holakoxe kamaiñak. Oain'e bai e? Oain kamarotiak dauzkae. Lagun bakoitzek edo bi lagunentzako bat. Armayua, pertxak, kumunak ez dakit hiru o lau uste det dauzkaen, dutxak... Dutxak eta jarri ta geo, dutxetan urik ez [dutxatzeko]. Entenditzen? Oain zenbat arte ba? Oain bata gehiago haunditu, ta bestiak ura gezatzeko aparatua jarri dixkoela, ta uan ura aukeran; baiña orduan ez.

-Orduan ez

-Orduan ez.

-Kamaiñak ta sukaldia ta . . .

-Bueno, baiña itxea e? Atuneta're jun, ta hiru egun pasata ta itxea, ta guk hoge egun pasatzen giñuzen. Baiña gure barkua ta haundixuak hituan.

-Zuek asko jota, bi-hiru egun?

-Ez, gu geyo, gu geyo, gu geyo. Guk zortzi egun, hamar egun, hamabost egun, ta geora ya, tenporada juten giñanian... Almeria juten giñen bi hillabete edo hola.

-Eta sukaldia-ta izaten zan?

-Bai, txikiya, txikiya, sukaldia ziharo txikiya.

-Eta pertsona bat izaten zan tripulaziyoko sukaldian ibiltzen zana?

-Bai, bai, bai, bai, bai.

-Beti berdiña?

-Sukaldia, sukaldia, sukaldia, sukaldia txarra; ta han eramaten zana txarro. Klaro! Ez zitxon ta!

-Dana arraia izango zan!

-Arraya bai, baiña dana marmitakua jan bihar. Iya aste guztiyan egunero marmitakua jaten. Oain marmitakoik porratu're ez. Oain ondo jaten dek, ondo.

-Ta lehen ze jaten zan?

-Geyena marmitakua.

-Arraya: egosiya, egosita...?

-Erreta, erreta, arraya erreta, erreta, parrilla eramaten genun. Bafora bakoitzak parrilla, ikatza, egur-ikatzakin parrilla.

-Ta horrela, patatekin ta ez...

-Bai, bai, marmitekua, marmitekua. Marmitekua dek atuna patatakin, atuna patatakin. Hori asko: bakaillua... Ta geo, faltatzen zana, ardua, ahitu iten. Hori lengo zaharrak oso ohituak ardua eraten. Oain ez dek ardoik eaten. Hori bai, hori gutxitu, dana gutxitu.

-Baiña lehen?

-Lehen bai.

-Ardua gehienbat?

-Ardua, ardua, ardua bakarrikan.

-Sagardua eta?

-Ez, ez, sagardua gaiñea, zea, mariatu iten dek. Bai. Akaso oain ez dek mariatuko, baiña orduan prozesuak edo...

11. Kostaldeko arrantza motor txikietan: paneka eta peskadilla

- **Erref:** GET-021/012
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:29:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Kostaldeko arrantza ere bazen, motor txikietan eta txalupetan. Batez ere merlenka (peskadilla) eta paneka harrapatzen zen. Motor txikia izaten zen, edo bestela abantean (arraunean). Oso gogorra zen. Egunero arraina despiskatu, sare guztiak atera eta garbitu, ondoren sareak konpondu... eta hori egunero, hurrengo egunerako dena prest izateko. Sarea eramateko angalla erabiltzen zen. Orduan ez zen sarerik botatzen harrira, eta ez zen kabrarik-eta harrapatzen. Urraburuak, lupiak eta abarrak ere gutxi harrapatzen ziren, eta beti amuarekin.

12. Itsarora irtetean, aitaren egiten da

- **Erref:** GET-021/013
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Itsasora irtetean aitaren egiten zen egunero. Carmengo ama ere han dago eta aitaren egiten da irtetean, nahiz eta moilaren irteera ezberdina izan.

13. Txitxarrota egiten du

- **Erref:** GET-021/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:30:05. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Oraindik ere arrantzan jarraitzen du Claudiok. Txitxarrota egiten du, kazan. Motorra martxan, geldi-geldi, eta txitxarrota egiten du. Bi apareju erabiltzen ditu.

14. Arkumearen ilea eta maluta erabiliz aparejoak egiteko

- **Erref:** GET-021/015
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Orain plastikozko aparejoak erabiltzen dira baina lehen arkumearen ilea erabiltzen zen. Zuritu eta horixe erabiltzen zen txitxarroarako. Eta atunetarako arto-maluta. Hori ere zuritu lixibatan eta lotu; "lejetako" horren gaintik beste maluta bat ipini. Eta hori guztia orraztu, izpitu. Eta horrekin egiten zuten atunetan kazan. Malutan egin egiten ziren, baina bazeuden

malutak egin eta saltzen zituztenak. Mutrikutik joaten ziren maluteroak Getariara. Malutak, behin erabiliz gero, ezin ziren berriro erabili. Arrantzale bakoitzak "kajeta" bat izaten zuen bere hari, orrazi eta malutekin. Orain dena aldatu da.

15. Antxoa bizia atunetarako

- **Erref:** GET-021/016
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Beita bizirik ez zen ia erabiltzen. Biberoak geroagokoak dira. Lehenago, antxoa harrapatu ahala, zuzenean erabiltzen zen atuna harrapatzeko, esku apariluarekin.

16. Ixkira gorria eta baleak

- **Erref:** GET-021/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Eguraldi "berdearekin" (haizetsua) ixkira gorria ikusten da eta han arraina egoten da. Ixkira dagoen tokian baleak ere egoten dira. Ahoa ireki eta ixkira guztiak jaten ditu.

17. Arrainik onena da bat-batean hiltzen dena, ez itota

- **Erref:** GET-021/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:40:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Arrainik onena da inpresioarekin hiltzen dena. Bizirik dagoela izotzetan sartuz gero, jateko gozoagoa da, bai antxoa eta bai beste guztiak. Eta txarrena itota hiltzen dena, pilan egon eta zapalduta hiltzen dena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com